



EUSKARALDIA

2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra

**GEHIAGO,
GEHIAGOËREKIN,
GEHIAGOTAN.**

AHOBIZI:

Euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz egingo duzu. Euskaraz ulertzen ote duten ez dakizunean lehen hitza, beti, euskaraz izango da; euskaraz ulertzen badu, euskaraz jarraituko duzu. Gakoa ahal den guztietan euskaraz egitea izango da.

Aztertu zure ohiturak eta ekin euskarari: Aztertu norekin eta zertarako erabiltzen duzun euskara.

Ingurua prestatu: Ingurukoekin aurreikusi eta adostu ohitura aldaketak.

Jantzi Euskaraldia: Txapa, sare sozialetako argazkiak... Adierazi parte hartzen ari zarela.

Elkarrizketa elebidunetan, euskaraz: komunikazioa bermatuta dagoenetan, eutsi euskarari.

Baztertu aurreiritziak eta eutsi erabakiari: aztertu nola gaingitu zure aurreiritziak. Ziur pentsatu baino gehiago egin dezakezula euskaraz.

Eutsi euskarari:

Ekin (lehen hitza euskaraz), **adierazi** (euskarari eutsiko diozula), egiaztatu (solaskideak ulertu dizula), **esan** (beste modu batean, solaskideak ulertzeko zailtasuna duenean).

